



## IKASTURTE BERRIA: BEHARRAK ERRONKA BIHURTUZ

Kaixo lagunak:

Udako oporrak igarota, beste ikasturte berri baten atarian aurkitzen gara. Aurrekoan hauteskunde sindikalak eta eskola itun berriaren negoziazioak izan bagenituen, oraingoan aurrez ditugun erronkak ez dira makalak.

Kontseilari berriaren eskutik, itxuraz behintzat, euskarazko irakaskuntzarako itxaropenezko zirrikitu txiki batzuk ireki ei dira. Halere, mugiezinak diruditen Euskararen legearen mugak hor diraute, baita British sasi eredu legez kanpoko ere.

Hortaz, Nafarroarako euskarazko irakaskuntza publiko baten aldeko jardunean murgilduko gara berriro ere, ikastetxeetako eguneroko kezka eta arazoak geureganatuz.

Aurtengoan galtza bete lan ibiliko baga ere, bide hori zuen ondoan egiteak zama hori eramangarriagoa eta atseginagoa bilakatuko zaigu, prefosta!

